

BERRI OROKORRAK

2018ko urriaren 5ean 4. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

1.-Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea osatzen duten kideak.

2018/19 ikasturtean Udarregi Ikastolako Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea nortzuk osatuko duten jakinarazten dizuegu.

Harremanetan jarri nahi izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus

					
Arantza Kamino lehendakaria	Gorka Goiatxe lehendakariordea	Jon Rekondo idazkaria	Oihana Sagarna diruzaina	Denis Elortza ahozkoa	Josune Estella udal-ordezkarria
					
Nekane Alduntzin ahozkoa	Beñat Larrañaga ahozkoa	Nerea Zinkunegi ahozkoa	Edurne Urdanpilleta ahozkoa	Nerea Tolosa gerentea	Mariaje Imaz zuzendarria

Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibaren ordezkotza egitea du helburu. Ikastolako gobernu eta gestio organoa delarik (ikus Estatutuak 2004). 9 partaide titularrek osatuta dago Batzar Orokorrean onartu ondoren. **Artezkaritza-Kontseiluak** Kooperatibaren ordezkotza egitea du helburu. Ikastolako gobernu eta gestio organoa delarik (ikus Estatutuak 2004). 9 partaide titularrek osatuta dago Batzar Orokorrean onartu ondoren. AK partzialki berriztatzen da, urtero herena.

Zaintza-Batzordearen funtzioa Batzar Orokorrari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitekoa da, Kooperatibaren urteko kontuak ikuskatzen direnean izan ezik, Kooperatibaren Liburuak ikuskatzekoa Batzar Orokorrera dei egitekoa eta Ordezkaritza agirien egokitasuna ikuskatzekoa eta kalifikatzekoa eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzekoa. Elkarrearen erabakiak aurkatzekoa ere (legez aurreikusitako kasuetan).

Batzorde horren kideak hauek dira: Jose M^a Rivadeneyra, Aitor Pikabea eta Elixebete Udabe. Ordezkoak: Jon Korta, Begoña Urra eta Ainhoa Azpirotz.

2.-Aniztasunari arreta.

Lerro hauen bidez dei egiten dizugu, **urriaren 10ean arratsaldeko 17:00etan**, (Gernika Ibilbidea 11) antolatutako dugun bilerara etor zaitezten.

GAIA: Inklusioaren gaiaz ikasturtean zehar ikastolak jorratuko dituen ildo nagusien berri ematea eta familien bizipenak eta iritziak jasotzea, lantzen ari garen proiektuen lanabes izan daitezten.

Zuen bizi-esperientziak, itxaropenak eta ekarpenak jasotzea, ikastolarentzat ezinbestekoa da, ikastola inklusiboa eraikitze bidean!; horregatik, biziki estimatuko genuke bileran zuen parte-hartzea! Eskerrik asko! Zatozte!!!

3.-FAMILIAK ADI!!! Hona HARRIA HITZ EGITASMOAREN GONBIDAPENA! EZ GAL AUKERA egunpasa ederra egiteko zuen seme-alabekin!!!!

"HARRIA HITZ bisitaren udazkeneko egutegia prest dago eta urriaren 20an izango da ibilbidea egiteko lehen aukera. 60ko hamarkadara bidaiara (eta gogoeta) proposatuko dizuegu eta, bide batez, goiz-pasa ederra egiteko aitzakia ere bai, 10:00etatik aurrera, **HARRIA HITZ** bisita gidatua eskainiko baitugu **Usurbilen**.

Euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da **Usurbil**, baita **euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria** ere. Inon baino hobeto islatzen da **60ko hamarkadan Euskal Herrian** gertatu zen **kultura-etzanda**, eta baita eztanda horren ondorena ere. **HARRIA HITZ ibilbideak, herrigunean** ikus daitezkeen zenbait elementuren bitartez, **Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian** jokatutako **papera ezagutaraztea du helburu**.

TxTxTx Txoko-aldeko Txalaparta Txokoa –Oreka TX taldeko txalapartariak Usurbilen entseatzeko eta erakustaldiak egiteko duten gunea– ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Horrez gain, **Zumeta Arte Estudioan** –Jose Luis Zumeta margolariak eta bere alaba Usoak partekatutako espazioan– murgilduko gara.

EGUNA ETA ORDUA: Urriak 20, larunbata, 10:00etan.

EGITARAUA:

10:00: Usurbilgo frontoian elkartu.

10:05: HARRIA HITZ bisita gidatua herri-gunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).

11:15: TXTXTX Txoko-aldeko Txalaparta Txokora bisita.

12:35: Zumeta Arte Estudiora bisita.

13:45: Amaiera.

HIZKUNTZA: Azalpenak **euskaraz** emango dira.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez). **688**

818 017 / info@kultour.pro

DOAKOA!!!!!!. Joan-etorriak mikrobusean edo taxi-busean egingo dira!

OHARRAK ETAPAKA



Ez dago berririk.



1.-Zorriak HHn.

HHko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:


1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.

3. Tratamendu berezia:

- Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
- Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



1.-LH 1eko familientzat oharra.

Guraso bileretan egindako eskaera aztertu eta gero, astelehenetik aurrera LH 1eko ikasleak HHko sarreratik sartu ahal izango dutela erabaki da.

2.-LH 3ko ikasleen irteera.

Hurrengo **asteazkenean**, urriak 10, LH 3. mailako ikasleak irteera egingo dute **Aginagara** eguraldiak laguntzen badu.

3.-LH 4ko ikasleen irteera.

Datorren **ostegunean**, urriak 11, LH 4. mailako ikasleek **Pasaiara** egingo dute egun osoko irteera. Beti bezala, 16:30erako bueltan izango dira.

4.-Atletismoa

Jakinarazi nahi dizuegu atletismoan izena emateko epea itxita dagoela eta ekintza era egokian eman ahal izateko, ez dela ikasle gehiago onartuko.

5.-Josketa-tailerra.

Hitz-Aho guraso-elkarteak, LH 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta, josketa tailerra antolatu du.

NOIZ: urriaren 19tik azaroaren 30era

EGUNA ETA ORDUA: ostiraletan 16:30etik 18:00etara.

IZEN-EMATEA: irailaren 28tik urriaren 11era hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz.


KUOTA: 20 euro.

6.-LH 6ko familientzat oharra.

Eskola-osasuneko programaren barruan, Euskadiko Txertaketarako Aholku-Batzordearen gomendioei jarraituz, hurrengo egunetan Lehen Hezkuntzako 6. mailako neskei giza-papilomaren birusaren eta C meningokokoaren aurkako txertoa jartzeko aukera izango da. Mutilei, aldiz, osasun sailak 2015etik aurrera aldatuta, C meningokokoaren aurkako txertaketa dosi bat emateko aukera izango da.

Txertoa ikastetxean bertan emango zaie, Osakidetzako langile espezializatuek jarriko diete.

Zuen seme-alabei txertoa jartzeko baimena ematen baduzue, arren, ikasleari, gaur ostirala, entregatu zaion baimena sinatu eta haurraren tutoreari entregatu **urriaren 10a baino lehen**. Ezezkoa bada ere, baimenean jakinarazi, mesedez.



1.-Hatz 10 mekanografia ikastaroaren kobrantza.

Jakinarazi nahi dizuegu, **Hatz 10** mekanografia-ikastaroan izena eman zuten ikasleei, urriko kuotarekin batera **5 euro** kobratuko zaizkiela.

2.-Zorriak.

DBH 1. mailako ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

4. Ondo begiratu familiako denei.
5. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
6. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.